

# HERNANI kronika

2004 urtea  
Otsailak 24  
Asteartea  
Alea: 1028  
[www.kronika.net](http://www.kronika.net)



Atzo 180 maxkuri autsi zituzten axeri dantzan sokan zijoazten gazteek. Ez eman gabe!

## Sardina erreta bukatuko dira gaur inauteriak

■ Ekitaldia Gudarien plazan egingo da arratsaldeko 18:30etan ■ Atzo, neska-mutil gazteen axeri dantza izan zen protagonista nagusia, eta eguerdian Potxin eta Patxin pailazoek gozatu zituzten umeak.

OSTIRALEAN hasi eta gaur bukatuko dira Hernaniko inauteriak, etenaldi luze baten ondoren egin diren 25garrenak, hain zuen ere. Arratsaldeko 18:30etan hasiko da sardinaren entierroa Gudarien plazan, eta lutuzko prozesioa atzetik dela Kardaberaz eta Kale Nagusitik buelta egin on-

doren, plazan erreko dute. Iaz, txapapote arrastoak zituela etorri zen sardina, eta ikusteko dago aurten zer ekarriko duen.

### Gazteak axeri dantzan

Azken 15 urte inguruan bezala, gazteen axeri dantza izan zen atzoko ekitaldi nagusietakoa. Txistulariek la-

gunduta eta axeri zaharren erakutsira, sokako 16 neska-mutil gaztek eta axeriak gozatu ederra eman zieten kalean barrena zebiltzan gazte eta helduei. Urtero koadrila berria izaten da eta gaztek ilusio haundiz hartzen dute axeri dantzako protagonista izatea. Ekitaldiak iraun zuen

ordu eta erdian Kaxkoan ez zen hotz haundirik, 180 maxkuri behar izan baitzitzuten denak gustora uzteko.

Axeri dantzaren ondoren, Potxin eta Patxin pailazoak izan ziren Biteri plazan. Arratsaldean, erraldoi, buruhaundiak eta Hortzmuga taldeak berotu zuten giroa. □

**Askagintzak  
gazteentzako  
formazio ikastaroa  
antolatu du  
sexualitatea eta  
drogei buruz**

ASKAGINTZA taldeak formazio ikastaroa antolatu du droga eta sexualitateari buruz eta izen ematea zabalik dago. Ikastaroaren helburua da prebentzioan, gizarte lanean eta gizarte hezkuntzan sakontzea eta gazteei begira dago antolatua. 30 orduko ikastaroa da, eta astelehena bitartean dago izen emateko epea, Askagintzan, bertan edo 943 336080 telefonora deitura. Astelehen arratsaldean bilera egingo da 17:00etan Askagintzan, interesatua daudenekin, zer ordu eta zein egunetan eman erabakitzeko. □

**Karobi elkarrean  
igandearen egingo  
du batzar nagusia**

KAROBI elkarrean igande honetan, hilaren 29an, egingo du batzar nagusia. Batzarreko gai ordea da: aurreko asanbleako akta onartzea, 2003ko balantze ekonomikoa irakurri eta onartzea, Zuzendaritza Batzordea aldatzea, baziak altak eta bajak eta eskarriak eta galderak. Batzarra 9:30etan da Karobi elkartean. □

**Hitzaldia bihar  
Urumea ikastolan**

URUMEA ikastola hitzaldi ziklo bat egiten ari da 2-12 urte arteko seme-alaben garapenaren inguruan. Hitzaldien helburua da seme alaben garapenaren ezaugarrak ezagutzea, euren autoestima sendotzeko. Gaur garapen afektiboari buruz hitz egingo du Jose Amiama psikopedagogoa. □



Inauterietako herriko hainbat irudi: Ordenadorez mozorrotua, gazteak xexenetan, zakurra mozorrotua eta axeri dantza.

**ALTZUETA**  
TOLARE - SAGARDOTEGIA

[www.altzuetasagardotegia.com](http://www.altzuetasagardotegia.com)

Altzueta Sagardotegia S.L.  
Osinaga Auzoa, 7 • 20128 Hernani  
Tel./Fax: 943 55 15 02  
e-mail: altzuetasagardotegia.com

**Asteartetik  
Larunbatera  
irekita**

**MÍNER  
JANARIENDA**  
Denda ixten  
dugu.  
Likidazioak otsailaren  
20tik aurrera.

Hainbat tresna salgai:  
- Mural frigorifika  
(motorra kanpoan dijona)  
- Arkoi Konjeladore bat  
- Kortadore  
- 2 pixu (1000 PLU memoriarek)  
- Zintzilikatzen den pixua  
- Estanteriak egurra, ispilua eta  
argiarekin eta normala argiarekin

INFORMAZIO GEHIAGO  
943 55 01 36 - 699 82 91 98

**LARRE-GAIN**  
TOLARE-SAGARDOTEGIA

943 55 58 46  
EREÑOTZU - HERNANI

Zataz sagardo berria edatera!

Sagardo naturala urte osoan botilan salgai

-Asteartetik igandera  
zabalik

-Ostiral eguerdietan  
enkarguz

LARRE-GAIN

## Gurasoentzat ikastaroa seme-alaben partehartzea eta ardura lantzeko

■ Ikastaroa Hernani Institutuak antolatu du eta astelehenero izango da, maiatzaren arte ■ Izena emateko epea hilaren 26an bukatuko da: 943 551958.

HERNANI Institutuak gurasoentzat ikastaro berezi bat antolatu du seme-alaben partehartzea eta ardura lantzeko bideak emateko. Martxoaren lehengainera iraungo duen ikastaro honek lau helburu nagusi ditu: 1) Lanean eta familia bizitzan seme alabak parte hartzen motibatzeko estrategiak landu, 2) gurasoen komunikaziozko gaitasuna eta jarrerak hobetu elkarkidez eta errespetuan oinarritutako bizi modua hobetzeko, 3) familia erantzukizunen desarroiloan oinarritutako autoritatea eta demokrazia baloreak bultzatu, eta 4) erantzukizuna lortu nahi denean eguneroko egoera konfliktoei konstruktiboki aurre egiten ikasi.

### Astelehenero, 18:00etatik 20:00etara Biterin

Gurasoei zuzendutako ikastaroa asteleheneran izango da Biterin eta denera 8 gai konkreto landuko dituzte: familia lana, familia ardurak, seme-alaben partaidetza, komunikazioa familial, erantzukizunaren kontua, familiako gatzak nola konpondu eta abar. Ikastaroa datorren astelehenean hasiko da eta gaia honako hau izango da: *Familia lana, ikusezina ikusgai egin*.



Hernani Institutuak emandako hitzaldietak bat Biterin.

### Era praktikoan

Instituak adierazi du programa era praktikoan eta talde dinamikan egiteko antolatuta da goela. Horretarako, 15-25 pertsonako taldeak osatuko dira. Bi orduko saioak izango dira eta lehendabizi gaiari buruzko

sarrera egingo da, bigarrenean ekintza praktikoak eta azkenik ondorioak bildu, hurrengorako etxeko lan eta guzti.

Matrikula 30 euro da pertsonako eta taldea osatzeko izena emandako txanda errespetatuko da. □



Hernani Ak iau jokalari, orain bi aste Hernanin jokatutako partidan.

## Hernani Ak irabazi eta Hernani Bk galdu

XAKE partidak izan dira joan den asteburuan eta lehen eta bigarren taldeak emaitza oso desberdinak lortu dituzte. Hernani Ak 3,5 eta 0,5 irabazi dio Gros E-ri. Fernando Esnaolak, Mikel Apezetxeak eta Jesus Navascuesek irabazi

egin dute eta Harkaitz Bereziartuak tablak egin ditu. Honenbestez, Hernanik sailkapeneko goikaldean segitzen du eta mailaz igotzeko aukera haundiak ditu.

Bestalde, Hernani Bk 0,5 eta 3,5 galdu zuen Fortuna

Bren kontra. Tablak Txema Orellanak egin zituen eta Joseba Goikoetxeak, Magi Ijurkok eta Iosu Arrietak galdu egin zuten. Hernani B-ri igotzeko aukerak asko zaildu zaizkio Fortunaren kontrako partida galdua. □



Matilde, senarrarekin eta Elizatxo Elkarteo lehendakariarekin.

## 25 urteko lanaren saria

ELIZATXO elkartean 25 urtean garbiketa lanak egiten aritu den Matilde omendu zuten pasa den ostiralean. Matilde jubilatu egin da eta Elizatxo elkartearak 25 urte hauetan egindako lana eskertu nahi izan dio. Hori dela eta, elkartearak

urte hasierako batzarrean era baki zuen Matilderi eta bere senarrari Tenerifera joateko bidaia oparitzea eta omenaldi afaria egitea. Afarian bertan eman zizkioten bidaiarako txartelak eta baita lore sorta eder bat ere. □

### ■ HITZ BITAN

#### ✓ TXANTXANGORRI ELKARTEA

**Mus txapelketa.** Aste honetan ere Txantxangorri elkarteko mus txapelketako partidak jokatzen ari dira. Gaur, M. Loinazek Pablo Ruizkontra jokatuko du buruz buru eta B. Goikoetxeak Joxe Etxarriren kontra. Bi bitara Pako-Patxo/Carlos-Javiren kontra eta Goñi-Bilbao/Joseba-Rafaren kontra ariko dira.

#### ✓ ASTIGARRAGA

**'Hitz Desehortzia' pelikula.** *Hitz Desehortzia* pelikula botako dute gaur Astigarragako kultur etxearen, arratsaldeko 20:00etan. Asteartero ari dira pelikulak botatzen "ixiltasunaren aurka" kanpainaren barruan. Gaurko pelikulak Guatemalako gobernuak eragiten zituen 200.000 indigenen heriotza kontatzen du eta bizirik ateratako maya baten historia. □

### ZERBITZUAK

#### ■ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udalzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulitorioa: 943 006666
- Jokalari anônimoak: 943 331103

#### + FARMAZIAK

- Egunez: Etxebeste Elkano 2 ☎ 943 552087
- Gauze: Etxebeste Elkano 2 ☎ 943 552087

### IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebral, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

Pisua salgai Elkano kalean. 3 logela, sukaldea, sala, komona, trastero txikia... Erabat amueblatua. Prezia: 222.375 euro. Deitu: 699 46 14 90

Etxea salgai Latxunbeberriñ. Ezin hobeto. 105 m2 erabilgarri + terraza 30 m + jardina 60 m + trasteroa 12 m2. 55.500.000 pta. Garaje itxia 3.300.000 pta. Tel: 651 70 88 84

Allianz

ASEGURUA  
Agustin Ezponda  
AGENTZIA

Telf.: 943 557 326  
656 735 109

Irakasle bat behar da

akademia batean

DBHkoei klaseak emateko

☎ 943 336090

OINDI

taberna  
NAGUSIA, 25  
HERNANI  
943 557 509